

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, VILLABONAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Villabonako Udalaren 2012ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorrren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Tokiko Erakunde Autonomoaren eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta 2012ko ekitaldian indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du udal eraikinak garbitzeko kontratuaren lizitazioa ez dela DOUEn eta BOEn argitaratu; berebat, etxerako laguntza zerbitzuaren kontratuaren esleipenean ez da berdintasun printzipioa bete.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du aurkezpen eta edukiari dagokionez; alabaina, salbuespen bat azpimarratu du Udalak bere Sozietate Publikoan duen partaidetzaren balioaren gainean narriadura erregistratzeko beharrak eragindako zalantzagatik.

Villabona Lantzen, SAK legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du Sozietateak bete duela 2012ko ekitaldian zehar ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia.

Sozietate Publikoaren urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da, egoeraren balantzean izakinen arrazoizko balioa zehazteko ezintasuna salbuetsita.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio ataletan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez ondorioztatu da Udalaren diru-sarrera eta gastu arrunten egiturak bariazio handiak izan dituela 2010-2012 aldian; ordea, 2012an aurrezki garbi positibo esanguratsua eskuratu da, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin eta geldikinaren erabilera puntualarekin batera, inbertsio programa adierazgarriak finantzatzeko bide emango duena.